



Amaren Eguneko lehiaketaren oinarri arautzaileak

- 1. Lehiaketaren esparrua eta prozedura.** Amaren Eguneko lehiaketa Real Sociedad de Fútbol SADen produktu ofiziala da. Realaren webgune ofizialaren bitartez parte hartzen da: beta.realsociedad.com. Hitzarmen honetako baldintzen arabera baino ezingo da erabili, eta zerbitzuari zuzenean lotuta dauden arauak kontuan hartuta. Eskatutako erantzunaren bitartez eta lehiaketan parte hartzeko aplikazioaren bitartez, baldintza guztiak onartzen dira.
- 2. Lehiaketaren xedea.** Lehiaketan parte hartu nahi duten jarraitzaileak klubaren webgune ofizialean erregistratuta egon behar dira. Parte hartzeko Quizen sartu behar dira “Noren amatxoa da?”, webgune “Parte hartu” atalean. Zale bakoitzak behin baino ezingo du parte hartu. Erregistratu eta parte hartzen duten eta erantzun gehien asmatzen duten zale guztien artean zozketa egingo da, eta oparia Swarovski eskumuturreko eder bat eta #GoazenNeskak kamiseta berezia izango da. Realak Sortea2 tresnaren bitartez egingo du zozketa.
- 3. Sari banaketa eta irabazlea.** Realak zuzenean emango dio saria irabazleari. Realak zuzenean jarriko da harremanetan irabazlearekin, pota elektroniko bitartez.
- 4. Kanpoan geratzea.** Oinarriak betetzen ez dituzten parte hartzaileak lehiaketatik kanpo geratuko dira, baita promozio honen erabilera gehiegizkoa edo iruzurrezkoa egiten dutenak ere. Real Sociedad de Fútbol SADek beretzat gordetzen du, alde bakarretik, erabiltzaile bat blokeatzeko eta Hitzarmen honi berehala amaiera emateko eskubidea. Ez dago baimenduta erabiltzaile batek behin bat gehiagotan bozkatzea.
- 5. Baldintza gehigarriak.** Real Sociedad de Fútbol SADek beretzat gordetzen du promozioaren Oinarriak aldatzeko eskubidea, partzialki edo osoki, edozein unetan. Halaber, beretzat gordetzen du saria bertan behera uzteko, hutsik uzteko edo deuseztatzeko eskubidea, baldin eta promozioan irregularitasunik antzematen bada edo Oinarri hauetan jasotzen den bezala gauzatzea galarazten duten kausa justu edo halabeharrezko motiboak gertatzen badira. Real Sociedad de Fútbol SADek beretzat gordetzen du edozein erabiltzailearen parte hartzea deuseztatzeko eskubidea, baldin eta bere iritziz hura iruzur egingez ari bada lehiaketan parte hartzen, edo gainerako lehiakideekiko bidegabe jokatzeko ari dela baderitzo. Real Sociedad de Fútbol SADek beretzat gordetzen du promozioa bertan behera uzteko eskubidea, behin betiko edo aldi baterako, bi kasuetan halabeharrezko arrazoiengatik, ustekabeko edo aurreikusitako ezinezko gertaerengatik edo iruzurragatik. Lehiaketan parte hartzeak berak esan nahi du erabiltzaileak honako oinarri arautzaile hauek guztiak onartzen dituela.